

Antzezleak

June Aginaga
Edurne Alonso
Izar Argaluz
Maren Arteta
Irene Benito
Unai Colina
Leire Corrales
Ainhize Egiguren
Xian Fernandez
Amets Goitia
Lara Guimaraes
Chantal Lacoste
Hegoa Laka
Julene Larrosa
Maddi Lasa
Lur Lovelli
Maitane Olano
Endika Palacios
Ainhize Perez
Javier Santana

Testuak Joseba Sarrionandia

Irudiak eta marrazkiak

Leire Laderas eta Maria Zarrabeitia (Ibarrekolanda BHD)

Soinua, argiztapena eta ekoizpena

Maddi Gaminde, Nora Juaristi,
Unax Alcubilla, Andoni Magdaleno eta Izaro Seoane

Kanpoko begirada

Roberto Ferro, Palmira Irisarri,
Jare Torralba, Jaime Valverde eta Joseba Sarrionandia

"Gernika" koreografia

Ines Aresti

Zuzendaritza, Gidoia eta Eszenografia

Igor Martin de Vidales

Musika

Tren luze bat, Geografia, Gernika (Eñaut Elorrieta)
Mundua begiratzeko leihoak (Berri Txarrak)
Lili bat, Oroitzen zaitudanean, Lekeitio-Gernika (Mikel Laboa)
Hegazti errariak (Xendarineko ahizpak)
Bizitza heldu da (Hiru Leike+Iñigo Muguruza+Andoni Basterretxe)
Alegrantzianaren aldeko konjura (Gose)
Belief, Kykakacha (Otyken)
Sagarminagan hegan (Pilt)
Izen zaharrak (Ruper Ordorika)
Heart cry remix (Drehz)
Bibolina Irene Benito

*"Oroimena garelak akordatzen naiz.
Oroimena eta ia ezer ere ez"*

SARRI MIN EMATEN DU AKORDATZEAK





Nor da deserritik heldu berri den hori?

Ulises al da? Zerk ekarri du bueltan?

Zerk bultzatu zuen joatera?

Badago joan zen hura etorri egin dela esaterik

ala oraindik ere joanean dabil?

Badago inoiz itzultzerik?

Oraingo hau al da orduko hura?

Eta gu? Gu al gara izan ginena ala etengabeko

Deserrian bizi gara gu ere?

Nondik dator Ulises berria? Badu aberririk ala

bera ere bihurtu da ez den herrialde baten

kartografo?

Zein da darabilen hizkuntza mendre hori?

Hizkuntza horretan badu esna-kantarik gure

sehaska hutsarentzat?

Zer dakar bere poltsiko zulatueta?

Badu krabelin gorririk gure liburu itxientzat?

Zer du gogoan? Eta guk? Zer dugu guk gogoan?

Akordatzen al gara ala akordatu barik hiltzen gara

oraindik ere geografia liburuetan ez den hemen

honetan?

Ba al dugu akordatu gabe bizitzerik?

Ez al gara ba oroimena?

Sarri, min ematen du akordatzeak.